

BERRIKUNTZA GURE TALDEEN KUDEAKETAN

AGILISMOA+ ART OF HOSTING

2018KO URRIAK 25

9.30TIK 18RA

GARABIA ARETOA

ZAWP BILBAO

DEUSTUIBARRA, 47, 48014

BILBO, BIZKAIA

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia
observatorio del
tercer sector de bizkaia



ZERGATIK ETA ZERTARAKO

Erakunde gisa, egunero gero eta zorrotzagoak eta aldakorragoak diren inguruneetan laneko taldeak eta proiektuak kudeatzeko erronka izaten dugu aurrean. Gure erakundeetarako garrantzitsua da zailtasun-egoeretan erantzuteko gaitasuna mantentzea, lantaldeak eta baliabideak modu eraginkorrean egituratzeko eta gero eta zorrotzagoak diren estandar administratiboak eta kalitatekoak betetzeko. Eta hori guztia eraldaketa pertsonaleko eta sozialeko espazioak sustatzen ditugun bitartean; erakundeetatik kanpora nahiz barrura.

Gai diren lantaldeak sustatzeko behar hori dela eta, erakundeen inguruan kudeaketa-eredu ugariak egoten gara, zeregin horretan lagun baitiezagukete.

Hori dela eta, gaur **bi ikuspegi eta proposamen horietara (Agile eta Art of Hosting) hurbiltzea proposatzen dizuegu**, hirugarren sektore sozialeko erakundeei zer eskain diezaiekeen jakiteko eta bizitzeko, eta hausnartzeko, garapen horiek ezartzen ari diren erakundeen esperientzia oinarri hartuta.

NORENTZAT DA PROPOSAMENA?

Proposamen honetan **hirugarren sektore sozialeko erakundeetan jarri dugu arreta, eta erakunde horiekin lotura izanik laguntza- edo kudeaketa-lanak egiten dituzuen pertsonetan**. Antolaketa-ingurune horietatik etorriko zareten pertsonen lehentasuna emango diegu, baina ez diogu aukera itxiko interesa duten bestelako publikoari (eremu publikokoa, hezkuntza arloko erakundeak, aholkularitza...)

- Erakunde gizatiarragoen parte izan nahiko zenukete? Sormena, lankidetzak eta produktibitatea handitzea bilatu nahi duen erakundearen parte?
- Sormenerako eta berrikuntzarako espazioak sortu eta haien parte izan nahi duzue, zehaztutakotik ateratzen diren bideak urratuz?
- Adimen eta ekintza kolektiboan sinesten duzue eta horretarako zuen erakundeetan lankidetzako lan-sareak sustatzen eta aktibatzen ikasi behar duzue?
- Egitura hierarkikorik gabe eta taldeko lanaz gozatuz harremanak izaten ikasi nahi duzue?
- Gizaki bakoitzaren jakiturian konfiantza duzue eta pertsona guztiei entzun eta haiengandik ikasi nahi duzue?

ZER PROPOSATZEN DIZUEGU?

Egun osoko Tailer bat, **09:30etik 18:00etara** bi unetan zatituta

Goizez tailer motako prestakuntza-esperientzia proposatzen dizugu, **"learning by doing" ikuspegia aplikatuta (eginez ikasi)**, beraz, presta zaitez, lehen unetik ekinean jarriko baitzara.

Workshopa honako hauen laburpen eta destilazio gisa diseinatuta dago:

- Lidergo Parte-hartzailea (ingelesez Art of Hosting edo Art of Participatory Leadership izenez ezagutzen dena)
- Agilismoa (ingelesez Agile gisa ezagutzen dena)

Teoriak, ereduak, teknikak eta metodologiak partekatuko ditugu eta haien aplikazioa, bi ikuspegiaren alkimia nola lortu jakiteko. Azken batean, teknika eta tresna ugariaren funtsa dastatu ahal izango duzu, haien erabilgarritasuna eta

zure erakundean nola txertatu ikusiko duzu, eta egun izan ditzakezun erronkekin praktikaren bidez ikasi.

Arratsaldez, ikaskuntzen bilduma laburra egin ondoren, ikuspegi mota hori inplementatzen ari diren **sektoreko erakundeen esperientzia errealak ezagutu eta horien inguruko hausnarketa egingo dugu.**

ZER DA AGILE (AGILISMOA)?

Agile (agilismoa) ikuspegi bat eta metodo eta praktiken multzoa da; horren arabera, irtenbideek bilakaera izaten dute auto-antolatutako eta funtzio anitzeko taldeen eta haien bezeroen/erabiltzaileen artean egindako lankidetzaren bitartez. **Egokitutako plangintzaren, garapen ebolutiboaren, entrega goiztiarraren eta etengabeko hobekuntzaren alde egiten du, eta erantzun azkarra eta aldaketarekiko malgua sustatzen du.** Metodologia agilen (Scrum/Kanban) oinarrian paradigma-aldaketa dago. Paradigma-aldaketa hori softwarearen garapeneko industrian sortu zen eta sektore eta neurri ugariako enpresetara zabaldu da azken urteetan.

- Proiektuen kudeaketa bezeroarekin lankidetzaz izatean oinarritzen da, haren beharrei lehentasuna ematean eta proiektuan inbertsioa itzultzean.
- Ingeniaritzako teknikak bilatzen dira garatutako proiektuen kalitatea eta egonkortasuna ziurtatzeko.
- Sorkuntza-prozesu osoan, ez amaieran, ziurtapen horren arduradunak taldekideak izango dira.
- Balioaren arabera bideratutako ereduak eta “beta” egoera (amaitu gabeko produktua, erabiltzaileen eta/edo bezeroen “feedback” goiztiarra lortu nahi duena) lan profesionalarekin bateragarria izatea
- Prozesuen ingeniartzaren eta etengabe bilakaeran ari den ingurunera egokitzeko beharraren arteko topagunea izatea ahalbidetzen du.



ZER DA LIDERGO PARTE-HARTZAILEA?

Lidergo Parte-hartzailearen Artea (Art of Hosting ingelesez, hitzez hitz itzulita ez bada ere) **gero eta konplexuagoa eta aurretik esan ezinezkoagoa den mundu bati erantzuna ematea da, irtenbideak eta berrikuntzak ez daude lider bakar baten esku edo ikuspegi bakar batekin, baizik eta elkarreragiten dugun sistema osoa ikusteko eta ulertzeko gaitasunean.**

Jakinduria kolektiboa aprobetxatzeko praktika oso eraginkorra da, eta edozein neurritako taldeen auto-antolaketarako gaitasuna ere aprobetxatzen du. Lidergo Parte-hartzaileak metodo ugari nahasten ditu elkarriketak ahalbidetzeko eta izateko, eta hala, aurrean ditugun erronkei aurre egiteko, laneko taldeen lankidetzako adimena aktibatuz.

Informazio gehiago izateko,: [Art of Hostingen munduko komunitatearen webgunea](#) irakur dezakezu



DINAMIZATZAILEA:

CAROLINA ESCOBAR.



Nazioarteko aholkularia. Agile Coach eta Scrum Master zenbait sektoretan. Esperientzia zabala tailerrak diseinatzeko eta bideratzen Art of Hosting (Participatory Leadership) erabiliz, baita askotariko ikuspegiak, metodologiak eta teknikak aplikatzeko ere, hala nola Design Thinking, Learning by Doing, Visual Thinking, Impact Mapping, Lego Serious Play, tejeRedes, besteak beste.

Aditua Digitalizazioko eta Berrikuntzako Estrategia eta Proiektuetan. Europako Somos Más taldeko sortzailekidea eta bazkidea. HUB Madrildeko kidea, bazkide-inbertsiogilea eta Impact HUB Bogotako Zuzendaritza Batzordeko kidea. Espacio Abierto kolektiboaren sortzailea. Madrilgo Unibertsitate Autonomoan Masterreko irakaslea eta enpresa-fundazioen prestatzailea.

Gaur egun TEDxTresCantos-eko lizentzia du Espainian eta Espainian Soulsight-ek sustatutako ekimena den “Re-thinking Business” taldeko kidea da (<http://rethinking-business.com/>).

BESTE PARTAIDE BATZUK:

EDUARDO ESCOBÉS (DINAMIZAZIOAN).

Garapen sozial, gizatiar eta erakunde mailakoaren bideratzailea. Coach, aholkulari eta prestatzailea. SCRUM ALLIANCEk ziurtatutako Scrum Masterra, Art of Hosting komunitateko kidea, agil Lean-Kanban tresnan ziurtatuta, aditu gisa aitortua plangintza estrategikoan, Antolaketa mailako garapenean eta prozesuen aholkularitzan, executive Coach-ACC (Associate Certified Coach), taldeetako coach, LEGO SERIOUS PLAY Method delakoarekin ekitaldiak diseinatzeko eta bideratzeko ziurtagiria, DHO-Giza eta Erakunde Garapenerako komunitateko kidea, ICFko kidea (International Coaching Federation), Euskaliteko ebaluatzaileen klubeko kidea, EFQM bikaintasun eta erabateko kalitatearen Europako ereduaren eta kudeaketa-eredu aurreratuan prestatua, ONG con Calidad arauaren prestatua eta GKE-en kalitaterako institutuko kolaboratzailea (ICONG), CEFE metodologian prestatua.

ESPERIENTZIEN MAHAI-INGURUA PRAKTIKATIK

LUIS LÓPEZ CATALÁN,

Director de Tecnología, Integración de Datos e Innovación UNICEF, COMITÉ ESPAÑOL

JOSU URCELAY,

Director Unidad de Personas de RAIS Fundación.

ZAWP-ERA NOLA IRITSI

Metroan, autobusean edo bizikletaz hurbiltzea gomendatzen dugu.

Metroa: Deustu (Iruñeko irteera). Hamar minutu oinez.

Mikrobusa (Bilbobus): A4 Zorrotzaurre-Deustu. Bost minutu.

*** Hartu hemen: Luis Power geltokia, Deustuko anbulatorioa.

*** Jaitsi hemen: Diesel tailerreko geltokia.

Beste aukerarik ez baduzu eta autoz bisitatu behar bagaituzu: Zorrotzaurreko norabidea hartu eta Frank Ghery zubia gurutzatu. Bi minutu (erref. Ribera taberna)¹



EMAN IZENA ESTEKA HONEN BIDEZ:

<https://goo.gl/forms/616ujUWjGNnWJ5323>

Bidali email bat promocion@3sbizkaia.org helbidera edo deitu
94 400 33 55 zenbakira

¹ CC sartutako irudiak eta agertzeko ordenan honako hauek egin dituzte: julianbrooke, Medialab Prado, psd, Michael Müller, _dChr, (lehen orriko atzealdeko irudia), Somos mas (p.3.4,5), guztiak (Somos Mas izan ezik) Flickr.com-en topa ditzakezun argazkilarien profiletakoak dira denak.